

CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A.REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko maiatzaren 30ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko maiatzaren 23ko datarekin, CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A. (CADEM) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko Zuzendari Teknikoa.
Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.
Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Enrique Monasterio Beñaran jaunak, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaz EGUZKI PLANTEN DISEINUA, PROIEKTUAREN INGENIARITZA, MATERIALEN HORNITZEA, ETA GAUZATZE ETA ERAIKITZEAREN KONTRATUA (CAD/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaz EGUZKI PLANTEN DISEINUA, PROIEKTUAREN INGENIARITZA, MATERIALEN HORNITZEA, ETA GAUZATZE ETA ERAIKITZEAREN KONTRATUA (CAD/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Ismael Aranda jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta CADEM, S.A. ren ahaldun gisa.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, Ismael Aranda jauna arituko da, Kontratuaren Arduraduna den aldetik. Aguirre jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die.

Egokitzat jotako azalpen eta argibideren ondoren, eta txostenak SPKLk eskatzen dituen eskakizun formalak betetzen dituela egiaztatu eta gero, Batzordeko kideek erabaki dute aho batez kontratazio organoari honako kontratu honen esleipenaren proposamena: LAU EGUZKI PLANTAREN DISEINUA, PROIEKTU INGENIARITZA, MATERIALAREN HORNIDURA, GAUZAPENA ETA ERAIKUNTZA (CAD/19/001). Balorazio txostenean era honetan azaltzen dena:

<<Aurkeztu zituzten eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, honako enpresen eskaintzak prezio-kalitate erlazio onena dituztenak direla izendatzea proposatzen da honako zenbatekoengatik eta bere eskaintzan adierazitako baldintzetan:

- **1. Lotea:** 780.000€, BEZ kanpo.

- KREAN DB ENERGY, S.L.k aurkeztutako eskaintzari uko egitea lehiaketari dagokion **2., 3. eta 4. Loteetan.**

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei CADEMek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere. Kontratu txikien zerrenda ikusita, zenbait gomendio egitea erabaki da.


3. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.

4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentea eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria